

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Turkiako Hezkuntza Ministerioa bisitan izan da Energia berriztagarrien Goi mailako Imarcoain Zentroan

Imarcoain zentroak formazio eta laguntza ematea nahi du Turkiako ordezkariak, herrialdean duten energiaren erreferentziako zentroa abiarazteko

Larunbata, 2017.eko irailak 23

Turkiako Hezkuntza Ministerioaren Idazkariorde Muhterem Kurt eta Advanced Project Education Consulting aholkularitzako Yildirim Özkaya eta Baris Özçelik unibertsitate-adituak izan dira Energia Berriztagarrien Erreferentziako Zentroan, Hezkuntza departamentuko Lanbide Heziketako zerbitzu-zuzendari Esther Monterrubioekin eta Imarcoain zentroko zuzendari Luis Orusekin.



Turkiako Hezkuntza Ministerioa bisitan izan da Energia berriztagarrien Goi mailako Imarcoain Zentroan.

Bisitaren helburua izan da Turkiako irakasleek Imarcoain, Energia Berriztagarrien Erreferentziako Zentron ikasteko aukera aztertzea, energia berriztagarrietan eta efizientzia energetikoan trebatzeko. Imarcoain zentroak euren beharrezanean erantzuteko soluzio-bideak eskaini diezaieke, bai formazio profesionalean, bai euren erreferentziako zentroa sustatzen.

Turkiako delegaritzak Imarcoain zentroa ezagutzeko aukera izan dute zuzendariarekin eta Hezkuntza departamentuko ordezkariarekin, eta ondotik bilera izan dute Lanbide Heziketako zerbitzu-buruarekin. Izan ere, Turkiako hezkuntza ministerioren menpe diren 70.000 ikasleri eragiten dien kudeaketa energetikoa sustatzeko neurriak kudeatzeko ardura du Hezkuntza ministerioko idazariordeak.

Hango gobernuak eraiki duen energia berriztagarrien zentroa Imarcoainen ereduari jarraituz egin dute. Izan ere, ez da oraingoa Imarcoainen izan den lehenengo delegaritza; aurretik hainbat aditu izan dira energia berriztagarrien zentroa ezagutzen. Hori dela eta, euren lurraldean antzeko hainbat zentro ezarri nahi dituztela eta, hori gauzatzeko Energia Berriztagarrien Goi Mailako Erreferentziako Zentroaren laguntza eskatu dute oraingoan.

Bileran aztertutako bestelako gaien artean, eta lanbide heziketari

dagokionez, bestelako ikasketa-proiektuak elkarrekin garatzeko aukeraz aritu dira, Erasmus+ programaren baitan. Horren harira, agintari turkiarrak prest agertu dira Nafarroako irakasle eta ikasleak hartzeko, batez ere, sukaldaritza, haur hezkuntza eta oihal industriaren arloetan.

Laster hasiko dituzte harremanak nazioarteko mugikortasun proiektuak zehazten joateko.